

getxoBerri

/ Nabarmentzekoak

- > Otsailaren 25era arte zabalik saharar umeak udan hartzeko izena emateko epea (2. or.)
- > Raúl Refree eta El niño de Elche pop kantuararen mugak aztertzeko dituzte elektronika esperimentaletik (3. or.)
- > "Gurea erabil dezakezu" kanpainak lehen telefono mugikorra edukitzeko adina atzeratzen lagunduko du (4. or.)



Antzerkia. Hilak 24, larunbata, 20:00etan, Muxikebarrin, "La mujer rota", Anabel Alonsorekin. 12 euro.

**A-
GENDA**

Kontzertua. Hilak 17, larunbata, 18:00etan, Kristo Eroslearen parrokiaren, "Passione per l'Italia" Andoni Martínez Barañano (tenorea) eta Mikel Gaztañagarekin (pianoa).

Kirol Metodologi LAB aurkeztu dute, kirol-metodologian berrikuntzarako laborategia

Getxo Kirolakek Kirol Metodologi LAB (KML) aurkeztu du. Kirol metodologiak berritzeko laborategia da, Kimet Sport enpresak garatua, eta, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, Fadurako erabilera anitzeko eraikin berria den Tiki Toki Zentroaren bigarren solairuan hasi da lanean.

Laborategiaren lantaldea teknologian, kirolan, komunikazioan, osasunean, marketinean eta prestakuntzan adituak diren pertsonak osatzen dute, beste jakintza-arlo batzuen artean, eta dagoeneko Getxoko hainbat klubekin lankidetzan ari da kirol errendimendua optimizatzen lagun diezaieketen metodologiak diseinatzen. Metodologia-tresnak garatzeaz gain, laborategi berri honen beste helburu batzuk kirol-erakundeetako teknikariei eta kudeaketa-langileei prestakuntza ematea, eta praktika eta ekitaldiak sustatzea dira.

Aurkezpenean, udalerriko kirol eta elkarte sarearen aurrean pasa den astean Faduran bertan ospatu zena (53 klubetako ordezkariak bertaratu ziren), Getxoko alkate Amaia Agirrek azaldu zuen: "Kirol Metodologi LAB-ekin, kirol getxotarra kirol kudeaketaren abangoardian kokatzen da, gure klubak indartuz eta egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiten lagunduz. Gainera, laborategi horren presen-



tziarekin, Fadurako Tiki Toki kirolaren gune dinamizatzaile eta topagune gisa duen zeregina indartzen du, eta gaur egun gure kirolaren birika gisa sendotzen da".

Bestalde, KML-ko arduradun nagusi Gari Fullaondok gogorarazi zuenez, "Laborategiak kirolean metodologia propioa garatu nahi duen munduko edozein kirol erakunderen 'Google' izan nahi du, baita udalerriko kirol erakunde guztiek kudeaketa metodologikoa mundu mailan arrakastatsua eta erreferentzia izateko topagunea ere, gure gizarte masaren kirol errendimendua eta ongiza-

tea hobetzea lortzen dugun bitartean".

Kirol Metodologi LAB udalerriko kirol kudeaketan eta jarduera ekonomikoan eragin positiboa izateko bokazio nabarmenarekin sortu da. Hori dela eta, datozen hilabeteetan laborategiko talde arduraduna proiektua eta eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutarazten hasiko da estatuko eta nazioarteko foroetan, non esperientzia handia duen 20 herrialde baino gehiagotan 50 erakunde baino gehiagorekin egindako lanekin eskarmentu zabala duen.

Getxo Jazz Talde lehiaketan izena emateko epea zabalik

Otsailaren 13ra arte egongo da zabalik Getxo Jazz jaialdiaren hurrengo edizioako Talde Lehiaketan parte hartzeko epea.


Jazz musika jotzen duten edozein joera edo estilotako talde europarrek har dezakete parte lehiaketan. Parte hartzeko gehieneko adina 30 urtekoa da, 2026an beteak, eta izena emateko unean egiaztatatu beharko da.

Lau talde aukeratuko dira. Aukeratutako talde bakoitzak jaialdiaren lehen lau egunetan joko du, eta irabazleak azken egunetan joko du berriro.

Sariei dagokienez, talde irabazleak 4.500 euro jasoko ditu, bere kontzertuaren zuzeneko CD baten grabazioa eta Lovainako (Belgika) B-Jazz eta Eivissa Jazz (Eivissa Jazz)

jaialdietan parte hartzea, jaialdi getxotarrak horiekin duen lankidetzak akordioari esker. Bigarren saria 1.900 eurokoa da. Bakarlarri onenak, berriz, 950 euro jasoko ditu.

Deialdiari buruzko informazioa Getxo Kulturaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan: <https://getxo-kultura.eus/deialdiak/>





URTARRILAK 15 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Sandhya Suriren "Secretos de un crimen" (JBO). 16 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Historias de risa sin prisas" (gaztelaniaz), Maricuelarekin. 5 urtetik gorakoentzat.

Literatura-solasaldia. 19:45ean, Algortako Kasinoan, Ana María Matuteren "Los soldados lloran de noche" liburuen inguruan.

Neguan flamenco. 20:30ean, Muxikebarrin, Vicky González & Sara Castro. Sarrera gonbidapenarekin (Romo Kultur Etxean eta Muxikebarrin). SGAE Fundazioaren ekimena, Getxo Kultura eta AIEren lankidetzarekin.

URTARRILAK 16 OSTIRALA

Zine-Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Joshua Oppenheimerren "The End" (gaztelaniaz). 12 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

NeguFest. 21:00etan, Muxikebarrin, Raúl Refree & El Niño de Elche, 25 €.

URTARRILAK 17 LARUNBATA

Storytime for babies. 11:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Wesley Wimp" (ingeles). Izena emateko (doan): getxo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es

Kontzertua. 18:00etan, Kristo Eroslearen parrokian, "Passione per l'Italia", Andoni Martínez Barañano (tenorea) eta Mikel Gaztañaga (pianista).

Neguko bidai. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Elurretan pasieran" (jazza). Iñar Sastre (pianoa), Hasier Oleaga (bateria) eta Jon Piris (kontrabaxua). 5 euro.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Desobedienteak 18/98" (euskaraz), Tanttaka Teatroarekin. 8 euro.

URTARRILAK 18 IGANDEA

Zinemabxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Amigos imaginarios" (gaztelaniaz). Adin guztientzat. 2,50 euro.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Dixie eta matxinada zontzia" (euskaraz). 7 urtetik gorakoentzat. 2,50 euro.

Haur antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Amal" (gaztelaniaz), Compañya de Comediantes la Baldufarenekin. 6 euro.

Emakumeak eszenan. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Aquí no paga nadie" (gaztelaniaz), Kameron Teatroarekin. Gonbidapenarekin (Romo Kultur Etxean eta Muxikebarrin).

URTARRILAK 19 ASTELEHENA

Mahai-ingurua. 18:30ean, Romo Kultur Etxean, "Cómo prevenir las caídas". Hizlariak: Carlos Matute (Neurozientziako katedraduna EHUn), Laura Lángara (Biokimika. Nutrizioan eta Mikrobiotan aditua), Ruth Delgado (Posturologian aditua den podologo) eta Víctor González de Echavarrí (Mahai-teniseko ingeniaria eta entrenatzailea). Antolatzailea: Gizatiar Romo-Areetako emakumeen elkarte soziokulturala.

URTARRILAK 20 ASTEARTEA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, AJANeren egoitzan (Juan Bautista Zabala 6), Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat.

URTARRILAK 21 ASTEAZKENA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat.

Hitzaldia. 18:30ean, Urgull Zentroan, "Tierras raras y materias primas críticas: Tecnología y Geopolítica. Un puñado de elementos que van a cambiar el mundo". Hizlaria: Manu Barandiarán (EHUko katedradun emeritua). Antolatzailea: Agora-EurGetxo. <https://eurgetxo.wordpress.com/>

Liburu-aurkezpena. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Por mujer: una historia desigual" liburuen aurkezpena, Cristina Gutierrez-Meurs egilearen eskutik.

URTARRILAK 22 OSTEGUNA

Antzerkia. 18:30ean, San Jose Langile parrokian, "Me lo tomo en serio", Atrezzo Getxo Antzerki Konpainiarekin. Sarrera doan. Antolatzailea: Gizatiar elkarte.

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Sara Fantovaren "Jone, batzuetan" (euskaraz, gaztelaniazko azpitituluekin). 12 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

URTARRILAK 23 OSTIRALA

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Princesas, caballeros y dragones", Bramant Theatre, Escalanterekin. 10 euro.

Zine-Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Costa Gavraren "El último suspiro". 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

URTARRILAK 24 LARUNBATA

Neguko bidai. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Per Quattro: de la tierra al atril", Ainhoa Gutiérrez Ortega, Laura Ildardia de Miguel, Nerea Quincoces Ochoa eta Olalla Montoya Gómez perkusionistekin. 5 euro.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "La mujer rota", Anabel Alonsorekin. 12 euro.

URTARRILAK 25 IGANDEA

Zinemabxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Gabi, 8 urtetik 13 urtera". 7 urtetik gorakoentzat. 2,50 euro.

Haur antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Hodei guztien gainetik", Markeliñe Teatroarekin. 8 euro.



Otsailaren 25era arte zabalik saharar umeak udan hartzeko izena emateko epea

Datorren otsailaren 25era arte zabalik egongo da datorren udan etxean saharar umeak hartzeko *Oporrak Bakean-Vacaciones en paz* ekimen solidarioan parte hartzeko izena emateko epea. ATFAL Sahararen aldeko Getxoko Elkarteak antolatuta, Udalarekin elkarlanean, 8 eta 9 urte bitarteko saharar haurrei, uztailan eta abuztuan, Aljeriako Tindoufeko errefuxiatuen kanpamentuetako errealitate gordina ahaztu ahal izateko aukera eskaintzen die programak. Ohi bezala, udalerriko egoiliarrek zein bertan lan egiten dutenek har dezakete parte.

Ekimenaren helburuak dira adingabekoen oinarrizko beharrezan asetzea aipatutako hilabeteetan; azterketa mediko orokorra,

begietakoa eta hortzetakoa ahalbidetzea; beren bizilekuko klima gogorra pairatzea ekiditea, tenperaturak 55°Cra iritsi ahal direlako; trukaketa kulturala, eta getxotarren artean Saharako herriak bizi duen egoeraz sentsibilitatea sortzea. Udalak, besteak beste, honako gastu hauetarako ematen du diru-laguntza: kanpamentuetatik etortzeko eta joateko bidaiarako, txangoetarako eta ekitaldietarako.

Pertsona interesatuek izen-ematea egin edo informazioa eska dezakete 658 751 359 / atfalgetxo@gmail.com edo Getxoko Udaleko Lankidetzaren sailean, 94 466 00 17 / lankidetz@getxo.eus.

Euskal Karabana Solidarioa Bestalde, datorren urtarrilaren 30ean amaituko da saha-

rar herriaren aldeko Euskal Karabana Solidarioako elikagai eta oinarrizko produktu higienikoen bilketa (arroza, atuna eta sardinak oliotan, azukrea, pasta, leakeak, konpresak eta helduentzako eta adingabeentzako oihalak). Udala ATFAL elkarteak udalerrian sustatutako ekimen horrekin elkarlanean ari da, Tindoufeko kanpamentuetan errefuxiatu sahararrek bizi duten elikadura-krisia arintzen laguntzeko. Bilketa udalerriko ikastetxetan, eta Fadurako eta Gobelako kiroldegietan egingo da.

Mugikorraren erabilerari buruzko ikastaroa 60 urtetik gorakoentzat

+60 Dinamizazio Zerbitzuak telefono mugikorraren oinarrizko erabilerari buruzko beste ikastaro bat antolatu du 60 urtetik gorako pertsonentzat. Tailerraren helburua da eskuko dispositiboaren segurtasuna areagotzea laguntzea, eta aldi berean, giza bakardadea ekiditeko guneak eskaintzea ere.

Ikastaroa urtarrilaren 19an eta 26an, eta otsailaren 2an izango da, 11:30etik 13:30era, Algortako Urgull Zentroan. Parte hartu nahi duten pertsonak doako izenematea egin dezakete 94 466 00 22 telefono zenbakiaren bidez.



Bisita Mariano Rodríguez Garcíari bere 100 urtebetetzeagatik

Amaitu Aguirre alkateak eta Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak Mariano Rodríguez García Algortako auzokidea bisitatu zuten aurreko astean, 100 urte bete zituela eta. Gallartan jaioa, duela 30 urtez geroztik Getxoko auzokidea da aipatutakoa. Gizona seme baten aita da eta bi biloba ditu. Agintariek ohiko Aixerrrotaren oroigarria eta lore sorta bat eman zizkioten omenduari.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Saialak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-erantzuleen lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Raül Refree eta El niño de Elche pop kantuaren mugak aztertzen dituzte elektronika esperimentaletik

Raül Refree eta *El niño de Elche* kontzertua eskainiko dute ostiral honetan, urtarrilak 16, Muxikebarrin, Bizkaiko neguko musika jaialdia *Negufest* ekimenaren barruan. 21:00etan igoko dira agertokira, *Cru+es* azken lana aurkeztera. Elektronika esperimentaletik pop kantuaren mugetara bidaiatuko dute, Yannis Ritsos poeta greziarraren bertso onirikoek gidatuta. Sarrerak 25 euro balio du.

Raül Refree soinu esperimentazioan lan egiten duen musikari eta ekoizle katalana da. Atmosfera inguratzailerengatik eta generoak fusionatzeko duen trebetasunagatik da ezaguna. Francisco Contreras Molina, *El niño de Elche*, bestalde, diziplina anitzeko artista da, flamenkoa rap, jazz, elektronika eta performancea integratuz berritzeagatik ezaguna. C. Tangana eta Los Planetas bezalako musikariek kolaboratu du. Elkarrekin flamenko tradizionaletik haratago doan proiektu musikal esperimental bat aurkezten dute, "soinu liturgia" bat sortuz.



"Aquí no paga nadie", Dario Foren klasiko bat RKEn

Kamerino Teatro konpainiak Dario Fo antzerkigile italiarraren *Aquí no paga nadie* obra klasikoa taularatuko du igandean, hilak 18, Romo Kultur Etxean. 19:00etatik aurrera, *Emakumeak eszenan* zirkuituaren barruan, errealitatea estutzen denean umorea arma bihurtzeko daitekeela erakusten duen istorio bat kontatuko dute. Proposamen zirrargarria, egungoa, dinamikoa eta hurbila, non barrea eta kontsumoari eta justizia sozialari buruzko kritika argia uztartzen diren. Sarrera gonbidapenarekin da (Romo Kultur Etxeko eta Muxikebarriko leihatiletan hartu behar da).

Tanttakak 18/98 sumarioa berriz aztertzen du "Desobedienteak" ikuskizunean

Muxikebarrin *Desobedienteak 18/98* antzezlan eskainiko du, euskaraz, larunbatean, hilak 17, 20:00etatik aurrera. Tanttaka konpainiak 18/98 sumario ezaguna aztertuko du urtarrilean estreinatutako lan honekin, euskal historia garaikideko auzi judizial polemikoenetako bat. Bizi izan zuten ahotsetik eta memoriatik egiten dute, mahai gainean inoiz entzun ez ziren zalantzak, zauriak eta kontakizunak jarri. Sarrerak 8 euro balio du.



"Amal", zerotik hasi behar dutenen errealitatea

Comediants La Baldufaren Companyia Muxikebarrira iritsiko da *Amal* familia osoarentzako antzerki ikuskizunarekin. Emanaldia igandean izango da, hilak 18, 18:00etan, eta sarreraren prezioa 6 eurokoa da. Sentsibilitatetik, hurbiltasunetik eta itxaropenetik abiatuta, hutsetik hasi behar dutenen errealitateari aurrez aurre begiratzen dion ikuskizuna aurkezten dute. Dena hasten da bi neska elkarrekin daudenean bilatu gabe: batak gerratik ihes egin berri du Mediterraneo zeharkatu ondoren; bestea bere eguneroko larritasunetatik ihes egiten saiatzen da.



"Elurretan pasieran", "Neguko Bidaia" kontzertu zikloari hasiera ematen dion jazz proposamena

Neguko Bidaia kontzertu-zikloak 18 urte bete ditu, eta programazio berri batekin egiten du hori. Larunbatetan izango da, urtarrilaren 17tik otsailaren 21era, 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, eta 5 euroko prezioa izango du. Lehenengo emanaldia, urtarrilaren 17an, jazz kontzertua izango da, Iñar Sastre (pianoa), Hasier Oleaga (bateria) eta Jon Piris (kontrabaxua) hirukotearen eskutik. Soinuen artean paseatzeko aitzakiarekin, *Elurretan Pasieran* proiektua elurtutako parajeetatik abiatzen da, leku ezezagunetara eramateko. Abiapuntua konposizio propioak dira, eta sortzeko modu gisa, inprobisazioa.



Santa Agedako abesbatzen jaialdian izena emateko epea zabalik

Urtarrilaren 23ra arte egongo da zabalik interesa duten herriko taldeek Santa Ageda 2026ko abesbatzen lehiaketan parte hartzeko epea. Otsailaren 4an izango da, ohi bezala. Egun horretan, arratsaldean zehar, helduen abesbatzek eta talde mistoek –helduen eta haurren ahotsekin– beren emanaldiak eskainiko dituzte bi gunetan: Andra Mari-Algorta eta Romo-Areeta. Jardunaldiari amaiera emateko, baterako emanaldi bat egingo da, 20:00etan, Algortako Geltokiko eta Romoko Santa Eugenia plazetan. Informazioa eta oinarriak: <https://getxo-kultura.eus/deialdiak/>

Parte hartzen duten establezimenduak pegatina batekin identifikatuko dira

“Gurea erabil dezakezu” kanpainak lehen telefono mugikorra edukitzeko adina atzeratzen lagunduko du

Udaleko Adizioen Prebentziorako Zerbitzuak *Gurea erabil dezakezu* kanpaina jarri du martxan, lehen telefono mugikorra edukitzeko adina atzeratzera laguntzeko, mugikorrik gabeko nerabearoa sustatzeko, bere erabilera goiztiarrak mendekotasun handia sortzen baitu, horrek dakarren kezka handiarekin. Altxa Burua, lehen smartphone edukitzeko atzeratzearen aldeko gurasoen mugimendurekin elkarlanean, kanpainaren helburua da ekiditea gero eta gazteagoi telefono mugikorra ematea normalizatzea. *“Badakigu familia askok segurtasun kontuengatik egiten dutela hori, haurrek autonomia handiagoz mugitzen hasten direnean komunikatzeko aukera izan dezaten. Horregatik, ekimenak udalerriko denda eta zerbitzu publikoak inplikatzeko dituzte, behar izanez gero bertara joan daitezkeen espazio seguruen sare bat sortuz. Era honetan, mugikorra ematea atzeratzera eta smartphonerik gabeko ne-*



rabearoa denbora gehiagoz sustatzera laguntzen duen alternatiba komunitarioa eskaintzen da”, nabarmendu du Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak.

Udalak 1.200 zerbitzu publiko eta kalean dauden saltoki ingururi bidali die eskutitz bat, ekimena azaltzeko eta beren partaidetza eskatzeko, telefonoa 8 eta 16 urte bitarteko haurrei eta nerabeei uzteko, horiek ustekabeko larrialdiren bat edukitzekotan. Era horretan, komunikatzeko telefono mobilak eskuratzeko arrazoia ekidituko da, modu autonomoagoan irtetzen hasten direnean argudiatzen duten arrazoi nagusienetako bat dena. Parte hartuko duten saltokiek kanpainaren leloa duen pegatina jarri beharko dute establezimenduetako erakusleihoan edo sarreran. Parte hartu nahi duten establezimenduetarako izenematea: <https://labur.eus/i3iehegg>

1.600.000 euro banatuta 2025eko Gizarte Larrialdiko Laguntzen artean

2025ean Udalak 1.600.000 euro banatu zituen 647 Gizarte Larrialdi Laguntzaren artean, 1.552 kontzeptu bildu zituztenak, 641 familia unitateri emanda. Prestazio horiek Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak dira, eta Udaleko gizarte-zerbitzuak arduratzen dira ordainketak izapidetu, ebatzi eta gauzatzeko. 2025ean Eusko Jaurlaritzak 1.231.515 euro ipini zituen eta Udalak beharrezko gainerakoa 1.600.000 eurotarako heldu arte. Oraingoan 158 eskabide izapidetu gabe geratu dira, erantzuna emateko zehaztutako aurrekontuaren mugara iritsi delako.

Gizarte-bazterkeriako arrisku-egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu espezifikoetarako



baliabide nahikorik ez duten pertsonentzat dira prestazio horiek. 2025ean, emandako zenbaitekoaren % 33,5 alokairu eta ostatu kontzeptuaren gastuei aurre egiteko erabili zen; % 30 inguru lehen mailako premien gastuetarako, % 18,5 energia-gastuetarako eta % 14,5 etxebizitza mantentzeko. Gainerakoa honako kontzeptu hauetarako izan zen: altzariak eta etxetresna elektrikoak, konponketak, zorpetzea eta ezohiko gastuetarako.

Datorren urtarrilaren 31n amaituko da 2025 urteari dagozkion Gizarte Larrialdietarako Laguntza guztiak justifikatzeko epea eta hori ez egitekotan, Udalak itzultze prozesua martxan jarriko du.

94 466 01 81
Garbiketa- eta hondakin-bilketetako zerbitzuentzako arretaz-zenbaki berria

Altzari berrerrabilgarrien ateratzea, etxetik bertan.

Altzari ez berrerrabilgarrien kaleko bilketa.

Herriko eguneroko garbiketa zerbitzuekin kontaktua.

Alta zerbitzu organikoan: edukiontzia irekitzeko txartelaren erabilera, inausketa eta ostalaritza hondakinak...

Etxeko hondakin toxiko eta arriskutsuekin lotutako gaiak.

Transferentzia-instalazioaren administrazioa eta Garbigunea.

Getxo Udalaren WhatsApp eta Telegram kanalak

Informazioa erabilgarri eta garrantzitsua herritarrei helarazteko kanalak

Canales para hacer llegar a la ciudadanía información útil e importante

Harpidetu Suscríbete

Jakinarazpenak aktibatu Activa las notificaciones

Gizarteratzeko futbola San Nikolas Zabalik Elkartearen eskutik

San Nikolas Zabalik Elkartek (SNZ) gizarteratze prozesuan dauden mutilekin futbol talde bat osatu du, El Correo Futbol 7 Txapelketa jokatzeko ari dena. Hain zuzen ere, Bizkaiko klubaren arteko lehiaketa da, dagoeneko hasi dena eta ikasturtean zehar garatuko dena. Torneoan jokatzeko aurreinskripzioa eta txapelketarako ekipamendua emaile anonimo batek egin ditu, eta astero futbol zelaietara egiten diren joan-etorriak SNZ elkartearen boluntarioen kontura dira.

“Futbol talde bat osatu dugu txapelketa honen eta Getxo Kirolaren esparruan. Pozgarria da beste talde batzuekin batera esperientzia honetan parte hartzea, Getxon eta Berangon bizi diren gure mutilek horrelako txapelketa batean parte hartzeak dakarren aukera inklusiboagatik”, nabarmendu dute San Nikolas Zabaliketik.



Elkartea 2021ean sortu zen gizarte ekintza bideratzeko, eta Algortako Bariko San Nikolas eta Berangoko Santo Domingo de Guzman parrokiak bultzatzen dute. Bere

helburuetako bat da migratzaileei laguntzea inklusioaren eta kohezio sozialaren ikuspegitik, zaurgarritasun egoeran eta/edo bazterketa sozialeko arriskuan dauden

pertsonen harrera, babesa eta sustapena bultzatuz. Erakundearen ekintza San Nikolas parrokiako lokaletatik egiten da. Hala ere, bere jardura duela hamar urte baino gehiago hasi zen, lehenengo gazte etorkinak Parrokia Etxean hartu zituztenean. *“Helburua bikoitza da”, adierazi dute entitateak. “Gure etorkinen lehen mailako beharrei erantzuten dien harrera-etxe baten inguruko lana. Eta gazte horien eta Getxoko komunitatearen arteko lotura sozialak sendotzea. Ahaztu gabe gizartea sentsibilizatzeko lana, tokiko komunitate harreragile, ireki, kulturarteko eta solidarioak sortuz”.*

Oinarrizko 3 proiektu ditu: *Abe-gi Enea* (harrera-etxebizitzak eta parte-hartze komunitarioko jarduerak), *IkHazi* (gaztelaniako eta prestakuntzako eskolak) eta *MER+* (elikagaien eta lermen kudeaketa solidarioa).



Carmen Galdós, Marítimo del Abra-RSC Klubeko presidente berria

Carmen Galdós Real Club Marítimo del Abra-Real Sporting Club elkartearen presidentea berria da, urte honetarako aurrera Manuel Sendagortaren lekukoa hartu baitu (goiko argazkian Carmenen ondoan agertzen dena). 1972an Club Marítimok eta Real Sportingek bat egin zutenetik karguan dagoen hemezortzigarren lehendakaria da.

Lanbidez arkitektoa eta lau seme-alaben ama, umetatik bela kirola egiten du. J80 klaseko Europako eta Espainiako Txapelketak eta Optimist klaseko Espainiako Txapelketak Abran antolatu eta jokatzeko urteari ilusioz gainezka aurre egingo dion batzorde baten burua da, talde gazte batek osatzen duena.

Nautika Digitala Sariaren lehen jardunaldia bertan behera
Eguraldiak baldintzatu du 2026ko bela denboraldiaren hasiera Abrako uretan. Aurkako eguraldi-parteen aurrean, Klubeko Estropada Batzordeak joan den larunbateko Nautika Digitaleko Trofeoaren lehen jardunaldia bertan behera uztea erabaki zuen, eta, beraz, proba honen bosgarren edizioa urtarrilaren 24an eta otsailaren 7an egitea aurreikusten da.

Bien bitartean, José Luis de Ugarte Bela Eskolak bela arineko egutegia irekiko du asteburu honetan Erecacho Trofeoarekin, Optimist, ILCA, 420 eta FEVA klaseetan.

Maialen Narbonak, Punta Galea Tx.E.-ko txirrindulariak, brontzezko domina lortu zuen joan den igandean, hilak 11, Balearretan jokatuak Espainiako Omnium Txapelketan, junior mailan. Maialen, zeina denboraldi honetan kategoriatan aritzen den, Euskadiko koloreekin lehiatu zen eta 103 puntu lortu zituen guztira, Adriana Varga (urrea) eta Marina Fernandez (zilarra) kataluniarren atzetik, 131 eta 118 puntu lortu baitzituzten, hurrenez hurren.

Brontzea Maialen Narbonarentzat

Maialen Narbonak, Punta Galea Tx.E.-ko txirrindulariak, brontzezko domina lortu zuen joan den igandean, hilak 11, Balearretan jokatuak Espainiako Omnium Txapelketan, junior mailan. Maialen, zeina denboraldi honetan kategoriatan aritzen den, Euskadiko koloreekin lehiatu zen eta 103 puntu lortu zituen guztira, Adriana Varga (urrea) eta Marina Fernandez (zilarra) kataluniarren atzetik, 131 eta 118 puntu lortu baitzituzten, hurrenez hurren.



Mikel Barandalla ilusioz gainezka Arenas Clubeko presidentziarekin

Ezin izan du hasiera hobeagorik izan Mikel Barandalla Tortajadak (Areeta, 47 urte) Arenas Clubeko presidentea karguan, joan den larunbatean lehen taldeak Real Madridil Castillaren aurka lortutako garaipenarekin, 4 eta 1 gailendu baitzitzaion. Denboraldiko azken partida izan zen Gobelan. Etxeko hurrengo norgehiagoka Faduran izango da.

Berarena izan da Klubeko Lehendakariarentzako eta Zuzendaritza Batzordearentzako hauteskunde prozesura aurkeztu zen hautagaitza bakarra, eta Gorka Zurinaga ordezkatu du karguan, lau urteko agintaldirako. Batzorde berrian, berarekin batera, Klubeko zenbait jokalaririk ohik eta aurreko batzarreko bi kidek parte hartzen dute.

Mikelek, jokalaririk beltz-gorri ohia, zuzendari ohiaren semea eta 90eko hamarkadan presidentea izan zen Santiago Barandallaren iloba, ilusioz ekingo dio aurre kargu berriari, baina baita erantzukizunez ere. Era berean, Historikoarentzat, errelebo hori normaltasun instituzional osoz egin da, *“prozesu garden, parte-hartzaile eta bere Estatutuarekin erabat egokitutako baten ondorioz, eta, horrela, erakundearen kirol eta gizarte proiektuaren egonkortasunarekin eta jarraipenarekin duen konpromisoa berresten da”,* Klubak zabalduko komunikatuan adierazten den bezala.



Udal talde politikoaren iritzia



GETXOKO ONDAREA, GURE HARROTASUNA



Proiektuekin aurrera egiteko eta horietako hainbat amaitzeko ilusio handiarekin hasi dugu 2026. urtea, betiere Getxoko herritarrei zerbitzua ematea eta haien beharrei zein planteamenduei arreta jartzea ardatz nagusi gisa izanda.

Urte berriari gai bati arreta berezia jarriko diogu. Egia da azken aldian EAJ-PNV Gobernunik kendu nahi duten arma izan dela gaia, baina errealitateak argituko du

gezur eta asmakeria nabarmenak izan direla. Ondareaz ari gara, zehazki, Getxoko arkitektura-ondareaz eta ondare sozio-kulturalaz.

2026an, Udalak tresna bat dauka betekizun egokiak dituzten eraikinak eta eraikuntzak gehiago babesteko: onetsi berri dugun HAP0a, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra. Horri esker, urte berriaz geroztik, kasu batzuetan babes handiagoa emateko auke-

ra izango dugu eta, era berean, errazagoa izango da jabeek XXI. mendera egokitutako birgaitze- eta mantentze-lanak egitea, eraikinen balioa mantenduta. Horrek argi uzten du, egoera errealak konplexuak direnean, benetako beharrak entzuten ditugula eta horiekiko konpromisoa daukagula. Getxoko ondarearen arloan, 2025. urtea albiste bikain batekin amaitu genuen: Punta Begoña galeriek Ondarearen Sari Iberikoak irabazi dituzte, Sintran egindako Kultura Ondarearen Nazioarteko Bierterkoan. Getxon egindako ikerketa, kontserbazioa, komunikazioa eta herritarren parte-hartzea saritu dituzte; eta aitormena egin diete Punta Begoña Fundazioaren lanari eta gure komunitateak duen konpromisoari etorkizunera begira gure ondarea babesteko eta lantzeko. Amaia Aguirre alkateak saria jasotzean honako hau adierazi zuen: «Jarrai dezagun gu geu garena zaintzen eta elkarrekin nahi

dugun hiria eraikitzen, Getxoz harro egon gaitzen!».

Argi dago horrek 2026. urteko lanetarako bultzada emango digula. Punta Begoña galerietako hegoaldeko pabiloian esku hartuko dugu monumentu-espazio horren distira berreskuratzeko eta horien erabilera soziala optimizatzeko.

Getxoko ondarearekiko errespetuaren eta konpromisoaren adibide ere bada Punta Begoña Fundazioa Galeako gotorlekuan koordinatzen ari den lana, getxoztarrentzat espazio adierazgarria baita hori. Lehenengo ingurua garbituko da, eta, gero, beharrezkoak diren egokitze-lanak egingo dira multzo horretan. Xedea hori izanda, benetako egoera aztertuko da, baita segurtasun- eta irisgarritasun-oinarriak ere, Galeako gotorlekuak gutxieneko museo-balioa eduki dezan.

Gure ondarea errespetatzeko eta berreskuratzeko konpromisoak dira, eta horiek betetzen ari gara.



URTE BERRIA, GETXO HOBETZEKO LEHENTASUN BERBERAK

Urte berriarekin eta behin Gabonak amaituta, udal-jarduera berriz ere hartuko dugu, energia berriekin eta Getxo hobetzen jarraitzeko nahi berarekin. Zenbait egunez atsedean hartu eta gero, berriz ere arreta alderdi garrantzitsuei jartzeko una da, gure auzokideei **entzuteko** eta udalerraren erronkei erantzuteko una, alegia. Gure konpromisoa oraindik ere argia da: Beharrezkoak diren ideia argiak defendatzen jarraituko dugu, hala nola udalerriko kaleetan **segurtasuna sendotzea, etxebizitza eskuragarriago izatea, tokiko ekonomia sustatzea eta irisgarritasuna hobetzea,**

besteak beste, **Salsiduko arrapalak birgaituz.**

Horiek ageriko lehentasunak dira eta gobernu-taldeak ez die behar bezala aurre egingen. Horregatik jarraituko dugu tematzin, alternatibak proposatzen eta kudeatzeko beste aukera bat dagoela gogorarazten, gure auzoen egunerokoarekin konpromiso handiagoa daukan kudeaketa-eredua, alegia. Beraz, urte berria lanean jarraitzeko konpromiso irmoarekin hasiko dugu eta Getxo hobea nahi dutenei ahotsa emango diegu. #andrade2027 #EsnatuGetxo



GETXOKO ESKOLA PUBLIKOAK, BEHARREZKO ARRETA GABE

EH Bildu Getxon kezkatuta gaude Getxoko eskola publikoek Udalaren aldetik jasotzen duten mantenu eta arreta faltagatik. Azkenaldian, zuzendaritzen eta Ikastetxeko Guraso Elkarte bidez jakin dugu hainbat ikastetxek konpondu gabeko behar garrantzitsuak dituztela, eta egindako eskaera askok ez dutela erantzunik jaso.

Argitu behar da Udalari dagokiola hezkuntza-zentroen mantenua bermatzea, eta beraz, bere ardura dela eskola publikoetan haurrek baldin-

tza duinak izatea, hezkuntza kalitatea eta segurtasuna bermatzeko. Ez gara hobekuntza estetiko hutsez ari, baizik eta eguneroko jardueran zuzenean eragiten duten baldintzez. Gaur egun, hainbat ikastetxetan oraindik konpondu gabe dauden arazoez zuzenean eragiten diote eskola-jardunari: euriarekin patioak erabiltzeko ezintasuna, egoera txarrean dauden barandak edo beroari aurre egiteko baliabiderik eza gela batzuetan, besteak beste. Arazo hauek ez dira puntualak, eta konponbideak ezin dira gehiago atzeratu.

Maiz, egoera hau Eusko Jaurlaritzaren eskumenen aitzakiarekin justifikatzen du Udal Gobernuak. Egia da hezkuntza-azpiegiturarako inbertsio handiak Eusko Jaurlaritzaren eskumena direla, baina horrek ez du Udala bere erantzukizunetik salbuesten. Udalak badaki zeintzuk diren ikastetxeen beharrak, eta beraz, inplikazio handiagoa behar da. Horretarako, paper aktiboagoa hartu behar du: eskolekin koordinazioa indartuz, Eusko Jaurlaritzarekin harremanak erraztuz, informazioa bideratuz eta behar diren tramiteak eginez, ikastetxeek baka-

rrik jardun ez dezaten.

Hezkuntza publikoa funtsezko zutabea da herri baten etorkizunerako, aukera-berdintasuna eta kohesio soziala sendotzeko. Horregatik, ezin da bigarren mailako auzi gisa tratatu. EH Bildu Getxotik udal gobernuari konpromisoa, arreta eta benetako inplikazioa eskatzen dizkiogu Getxoko hezkuntza publikoaren alde, eskola publikoek eta bertako hezkuntza-komunitateak merezi duten erantzuna jaso dezaten, eguneroko funtzionamendua eta baldintza egokiak bermatzeko.



SALTOKI BERRIAK SUSTATZEKO ALOKAIURAKO LAGUNTZAK

PSE-EEK kudeatzen duen Getxoko Udaleko Ekonomia Sustapenerako Arloak **tokiko merkataritza bizi eta hurbilaren aldeko apustua egiten du. Mugimendua daukaten kaleak, etorkizuneko auzoko saltokiak eta Getxoko jarduera areagotuko duten persiana ireki gehiago nahi ditugu. Lonjak Piztu** programa sustatu genuen, Merkataritza Suspertzeko Plan Bereziaren (PERCO) barruan. **Hutsik dauden lokaletan**

saltoki bat irekitzeko pausoa ematen dutenei alokairuaren zati bat ordaintzen zaie, eta merkataritza-ardatzetatik hurbil dauden kaleak biziberritzen dira. Emaiztak lortu ditugu: **zazpi ekimen deialdi horretako onuradun izan dira eta, guztira, 37.200 euro jasoko dituzte** lehenengo urtean zehar alokairuarekin laguntzeko. **Dirulaguntza hilabeteko alokairuaren % 50ekoa da (gehienez ere, 400 euro), 12 hi-**

labete bitartean, eta hilean 150 euro gehiago eskuratu ditzakete gazteek, emakumeek sustatutako proiektuek edo etorkizunera begira dauden sektoreetara bideratutakoek: kultura-eta sormen-industriak, ekonomia zirkularra, kirola eta ongizatea, teknologia, etab. Finean, **jarduera gehiago, enplegu gehiago eta Getxo biziago egongo da.** Bigarren deialdian izena emateko epea 2026ko apirilaren 30ean amaituko da.



ESKOLA PUBLIKOA BERRIZ ERE ATERPERIK GABE

Getxoko Zubilleta eskolako familiek berriz ere laguntza eskatu diote Udalari jolastokian karpa bat jartzeko, ikasleak eta familiak eurtik babes ditzen. Izan ere, gaizki egindako obren ostean, eskolak ez dauka espazio estalirik. Oinarritzko eskari horrek beste behin agerian utzi du eskola publikoaren zaintza urria. Elkarrekin Podemos udal-taldeak eskola publikoarentzat kalitatezko espazio duinak eskatzen ditu.